

**ZERKAUSIA
EL TINGLADO**

(Kultura Saila. Eusko Jaurlaritzaz / Departamento de Cultura. Gobierno Vasco)

Gipuzkoa

Tolosa

Erdigunea Casco urbano

Beatriz Herreras Moratinos

Erdi Arotik, hiribilduetan eta hiriguneetan merkatuak eta azokak egon ziren. Autohornikuntza gaindituta, soberakina saldu behar zenez, gizarte berriak eskatzen zituen trukeak egiteko esparru berri horiek beharrezko bihurtu ziren.

Hautatutako kokapenak, hasieran kanpoaldean, garaiko hirigintzari egokitzen joan ziren, premia eta planteamendu berriekin batera. Tolosa, egun arte iraun duen merkatal jarduera izanda, horren adibide ona da. XVIII. mende bukaeran hiriak hiru merkatu ere izan zituen hirigune historikoan. 1785ean, merkatal jarduera guztiz sendoa zela, Udalak eraikin bat eraikitzea proposatu zuen ordura arte plaza Zaharrean biltzen ziren merkatariak hartzeko. Emaizta eraikin oso sinplea izan zen, estalpea deitu zutena, eta XIX. mendearen bukaera arte erabili zen. Ordurako barruko hiri esparrua agortuta zegoenez gero, garai hartan bazterrekoa zen kokapen bat hautatu zen, hesi edo harresiaren ondoan osatutako zabalgunea bat, eta hartatik hartu zuen izena euskaraz, Zerkausi. Nafarroako eta Gaztelako ateen artean zegoen; horrela, hesiaren lerroari jarraituz, hego muturrean angelua osatzen zuen.

Desde la Edad Media los mercados y ferias fueron una realidad en villas y centros urbanos. Superado el autoabastecimiento, la comercialización del excedente hizo necesarios estos nuevos espacios donde tenían lugar los intercambios que la nueva sociedad imponía.

Los emplazamientos elegidos, inicialmente al aire libre, fueron adaptándose al urbanismo de cada época en paralelo a las nuevas necesidades y planteamientos. Tolosa, con una actividad comercial que se ha mantenido hasta la actualidad, es un buen ejemplo de ello. A finales del siglo XVIII la villa llegó a contar con tres mercados en su casco histórico. En 1785, con una actividad comercial plenamente consolidada, el Ayuntamiento propuso la construcción de un edificio que acogiera a los comerciantes hasta entonces asentados en la plaza Vieja. El resultado fue un edificio muy sencillo, al que llamaron cobertizo o tinglado y que se mantuvo en uso hasta finales del siglo XIX. Dado que ya entonces el espacio urbano interior estaba agotado, se eligió como emplazamiento un lugar por aquel entonces residual, un ensanchamiento formado junto a la cerca o muralla, de la cual tomó el nombre en euskera de *Zerkausi*. Se disponía entre la puerta de Navarra y la de Castilla, de tal forma que siguiendo la alineación de la cerca formaba un ángulo en el extremo sur.

xix. mendearan azken herenean, Tolosa, ordurako probintziako hiriburua ez bazen ere, erdigunea bihurtua zen, batez ere gertuko landa inguruari dagokionez, eta hori dela-eta, esparru eroso eta egokituak behar ziren merkatuak egiteko. Garai hartan, eguneroko merkatua kanpoaldean egiten zen, Berdura plazan, eta asterokoa Zerkausiko estalpe zaharrean. Hori ez zen aski, argi eta garbi. Merkatu berria behar zen. Zailtasun ekonomikoak eta kokapenari buruzko eztabaida etengabeak luzatu egin ziren eta behin betiko eraikuntza atzeratu egin zen. 1895ean bi irtenbide proposatu ziren: lehenengoaren arabera, plaza Berria hartuko zen, eta bigarrenaren arabera, Solana kaleko (egungo Zerkausi kalea) estalpe zaharra eraitsi behar zen. Proiektuek auzo elkarrean atxikipenak izan zituzten. Azkenean Solana kalean kokatzea onartu zen, kontrako ahotsek ezinbestean Oria ibaiaren uhaldien eraginpean egongo zela adierazi arren. Bestalde, hura eraikita asteko merkatuaren arazoa baino ez zen konpontzen. Merkatu zaharra eraitsi ondoren –Policarpo Elosegiren dokumentu grafiko interesgarrian jasota– estalpe berria 1898an hasi zen eraikitzen, eta bi urteren buruan amaitu. Plaza Berriaren aukera alde batera utzita, Tolosak osorik eutsi ahal izan zion bere esparru publikorik onenetako bati.

Zerkausi herriaren proiektua Juan Alejandro Mujikaren lana izan zen, orduko udal arkitektoa bera; eta hiriaren ekipamenduari dagokionez oso garai emankorrean egin zen.

En el último tercio del siglo xix, Tolosa, aunque perdida la capitalidad provincial, había adquirido una gran centralidad en relación principalmente con el área rural cercana, lo cual obligaba a contar con espacios cómodos y adaptados a la celebración de mercados. Por aquel entonces el mercado diario tenía lugar al aire libre en la plaza de la Verdura, y el semanal en el viejo tinglado de Zerkausi, lo que resultaba a todas luces insuficiente. Era necesario un nuevo mercado. Las dificultades económicas y las sucesivas discusiones sobre el emplazamiento idóneo fueron dilatándose y la construcción definitiva se retrasó. En 1895 se plantearon dos posibles soluciones: según la primera, se ocuparía la plaza Nueva, y según la segunda se hacía necesario el derribo del antiguo tinglado de la calle de la Solana (hoy Zerkausi kalea). Cada proyecto contó con adhesiones de diferentes agrupaciones vecinales. Finalmente se aceptó la ubicación en la calle Solana, aunque las voces en contra señalaban que irremediamente se vería afectado por las crecidas del río Oria. Además, con su construcción tan sólo se solucionaba el problema del mercado semanal. Tras el derribo del antiguo mercado –recogido en el interesante documento gráfico de Policarpo Elósegui– la construcción del nuevo tinglado se inició en 1898, quedando terminado dos años más tarde. El abandono de la opción de la plaza Nueva, permitió a Tolosa conservar intacto uno de sus mejores espacios públicos.

El proyecto del nuevo tinglado o Zerkausi fue obra de Juan Alejandro Múgica, por aquel entonces arquitecto municipal; y lo fue en una época especialmente fértil en el



Tolosako bilbaduraren kokalekua agertzen den aireko ikuspegia, hirigunearan eta Nafarroa zubiaren ondoan. (Santi Yaniz)

Vista aérea donde se observa la ubicación del tinglado de Tolosa junto al casco urbano y al puente de Navarra. (Santi Yaniz)



1927an bilbadura handitu zenekoa. Guillermo Eizaguirrek fatxada itzela sortu zuen ibairantz; puntu erdiko hogeia arku ditu. (Jesús Elosegui Irazusta.Arandazi Z.E.)

Ampliación del tinglado de 1927. Guillermo Eizaguirre creó una imponente fachada que avanza hacia el río con veinte arcos de medio punto. (Jesús Elosegui Irazusta.Arandazi Z.E.)

Proiektugileak asmatu egin zuen agertu zitzaizkion kontu askori irtenbidea ematen. Eraikin berriak erabateko bira ekarri zion hiriko esparruen definizioari. Barrurantz biltzeari utzi eta, esparru itxietan kokatutako merkatuaren ereduetatik urrunduta, esparru berriak bereganatzea bilatu zuen. Proiektuko eraikina 74 m luze eta 11 m zabal zen, Zerkausi zaharraren azalera gehiena hartzen zuen, eta bi ilara zutabe bermatu zituen ibilguan eta ondoko ibaiertzean. Eraikinaren luzera 3,50na metroko hemeretzi modulutan eta muturretan 3,75na metroko bi gorputzetan banatu zen. Egitura horrekin, ibilguaren gainean pabilioi bat sortu zen, Solana kalearen gainean apur bat igota, uhdietatik kanpo geratzeko, ibairanzko balkoi gisa. Hiria kanpoko paisaiarantz zabaldu zuen eta, aldi berean, bere forma luzearekin eta sailtako egiturarekin, Nafarroako biderantz hiriaren irudi berria ematen zuen.

Bere proiektuan, arkitektoak burdinurtuzko egitura hautatu zuen, eta garairako modernoak ziren elementuak erabili zituen, ibaiaren gaineko lanean muntaketa sinpletua ahalbidetzen zuten elementu aurrefabrikatuak. Eraikinak solairu bi zituen, eta haietako bakoitzean burdinurtuzko zutabe berdinak. Haien gainean, metalezko profilak zituzten nerbio horizontaletako harlauzak osatzen zituen. Merkaturako esparruko zutabeak ibilguan jarritakoak baino apainduagoak ziren eta osatzen zuten nabea 5,10 m garai zen. Zutabeek harroin sinplea zuten eta eraztun molduratuak; goiko herenean eta piramide-formako kapitulean bolak zituzten apaingarri. Atera zen eraikinean haren liraintasuna eta burdinazko egituraren arintasuna nabarmentzen dira; haien formek kontrastea egiten dute haien gaineko hesi zaharraren horma sendoarekin.

equipamiento de la ciudad, durante la cual el proyectista acertó en la resolución de muchas de las cuestiones planteadas. El nuevo edificio marcó un giro absoluto en la definición de los espacios de la villa, que dejaba de replegarse hacia el interior y, alejándose de los modelos de mercados ubicados en recintos cerrados, buscaba ganar espacios nuevos. El edificio proyectado tenía 74 m de longitud y 11 m de anchura, ocupando la mayor parte de la superficie del Zerkausi antiguo y apoyando dos filas de pilares sobre el cauce del río y la ribera adyacente. La longitud del edificio se dividía en diecinueve módulos de 3,50 m y dos cuerpos en los extremos de 3,75 m. Con esta estructura se generó un pabellón sobre el cauce, ligeramente elevado sobre la calle Solana para mantenerse libre de las crecidas, a modo de balcón hacia el río. Abría la ciudad hacia su paisaje exterior; al mismo tiempo que con su forma alargada y estructura seriada ofrecía una nueva imagen de la ciudad hacia el camino de Navarra.

En su proyecto el arquitecto optó por una estructura de fundición de hierro en la que utilizaba elementos modernos para la época, unos elementos prefabricados que permitían además un montaje simplificado en el trabajo sobre el río. El edificio constaba de dos pisos con columnas de fundición iguales en cada uno de ellos, sobre las que formaba losas horizontales con nervios de perfiles metálicos. Las columnas del espacio del mercado eran más ornamentales que las dispuestas en el cauce y formaban una nave de 5,10 m de altura. Las columnas contaban con una sencilla basa y anillo moldurado decorado con bolas en el tercio superior y capitel piramidal. El edificio resultante destaca por la esbeltez y ligereza de la estructura en hierro, cuyas formas contrastan con el muro macizo de la vieja cerca a la que se superpone.

xx. mendeko lehen hamarkadan Zerkausiak bere lehen zaharberitze handia izan zuen. Hedatze hutsa baino zerbait gehiago izan zen eta haren irudia eta tipologia aldatu zituen. Haren arduraduna Guillermo Eizaguirre udal arkitektoa izan zen. 1927an hormigoia erabiltzea erabaki zuen, garai hartan material berritzailea izanik, Mujika arkitektoaren erakuntza arin eta metalezkoaren aurrean. Hormigoia hautatuta, arkitektoak fatxada bat sortu zuen ibairantz, eta horrela Zerkausi zaharraren irudi itxia berreskuratu zen. Urtebete geroago, 1928an, ibairanzko fatxadako zuloak ixteko zureria egin zuen, eta horrela alde horretan eraikin itxiko behin betiko itxura eman zion, Solana kaleko fatxadak zabalik jarraitu zuela. Ibaiaren gainetik doan fatxadak puntu erdiko beiradun hogeitarko hesitu dauzka. Haietako bakoitza kapitela klasikoko zutabe enbutituen bidez banantzen da ondo-koetatik. Zerkausiak, kanporantz, terraza dauka, eta barrurantz metalezko estalkidun hormarte bi dauzka eta beste bi hormigoizkoak eta burudunak dira. Alboetan bi altuerako dorretxo bana dago, porlanezko balaustradadun balkoietxo erdizirkularrekin, bulego ofizialetarako. Eskailerak ere haietara aldatu ziren. Horrek guztiak indar handiko irudia ematen digu, eta goiko terraza eta dorretxoak barandetan amaitzeak edertu egiten du. Geroagoko obra batzuek hegal-pasagunerako sarbide zuzena itxi zuten. Pasaguneak metalezko eskudela dauka eta erdiko hiru bakoetan nabarmendu eta zementuzko balaustradadun balkoietxo erdizirkular gisa zabaltzen da. Ibilguren gaineko hedapenerako hautatutako hormigoiak berak ahalbidetzen du apaintza eklektikoa, eta horrek barruko metalezko eraikin arin eta forma garbikoa mozorrotzen du.

Tolosako Zerkausia eraikin adierazgarria da. Bertan, arkitekturaren bilakaera sumatzen da argi, burdinazko egi-


En la década de los años veinte del siglo xx le llegó al tinglado su primera gran reforma, que sería algo más que una simple ampliación y con la que se modificó su imagen y tipología. El encargado de ella fue el también arquitecto municipal Guillermo Eizaguirre, quien en 1927 decidió emplear el hormigón, material innovador por aquel entonces, frente a la construcción ligera y metálica del arquitecto Mújica. Con la elección del hormigón el arquitecto creaba una fachada hacia el río, y con ello parecía recuperarse la vieja imagen cerrada del antiguo Zerkausi. Un año más tarde, en 1928, ejecutó la carpintería de cierre de los huecos de la fachada que daba al río, otorgando ya al mercado un definitivo aspecto de edificio cerrado en ese lado, mientras que la fachada de la calle Solana seguía quedando abierta. La fachada que avanza sobre el río presenta veinte arcos de medio punto acristalados y recercados. Cada uno de ellos se separa de los contiguos con columnas embutidas de capitel clásico. La cubierta es aterrazada al exterior, y al interior tiene dos crujiás con cubierta metálica mientras que otras dos son adinteladas de hormigón. En cada lateral se eleva una torreta de dos alturas con balconillos semicirculares con balaustrada de cemento, destinadas a dependencias oficiales y adonde también se trasladaron las escaleras. Todo ello nos presenta una imagen de gran fuerza, realizada por el remate en baranda de la terraza superior y las torretas. Otras obras posteriores cerraron el acceso directo a la curiosa pasarela volada y con barandilla de metal que en los tres vanos centrales se acusa abriéndose a modo de balconillo semicircular con balaustrada de cemento. Es precisamente el uso del hormigón elegido para la ampliación sobre el cauce lo que permite la decoración ecléctica que enmascara el edificio interior metálico, liviano y de formas puras.

El Tinglado de Tolosa es un emblemático edificio donde se aprecia claramente la evolución de la arquitectura des-



Eraiki zenetik gaur egunera arte lehen mailako herri gunea izan da Zerkausia Tolosan. (Jesús Elosegui Irazusta. Arandazi Z.E.)

El tinglado ha sido desde su construcción hasta la actualidad un espacio público de primer orden en la vida de Tolosa. (Jesús Elosegui Irazusta. Arandazi Z.E.)



Burdinurtuzko egitura. Zutabeek harroin erraza zuen, baita goiko herenean eta kapitela piramidalean bolekin apaindutako eraztun modulatuak ere. (*Kultura Saila. Eusko Jaurlaritza*)
Estructura de fundición de hierro. Las columnas contaban con una sencilla basa y anillo moldurado decorado con bolas en el tercio superior y capitel piramidal. (*Departamento de Cultura. Gobierno Vasco*)

Albo banatan, bi altuerako dorre bat dago, porlanezko balastrada duten balkoitoxo erdi zirkularrekin; bertan daude kokatuta bulego ofizialak. (*Kultura Saila. Eusko Jaurlaritza*)
En cada lateral se eleva una torreta de dos alturas con balconillos semicirculares con balastrada de cemento, donde se ubicaron dependencias oficiales. (*Departamento de Cultura. Gobierno Vasco*)

turetatik hormigoizkoetaraino. Horrela, eraikin berezi eta bakarra, itxura handikoa eratzen da. Han ildo eklektikoak eta funtzionalak era guztiz harmoniatsuan uztartzen dira. Duela gutxi, 2006an, zaharberitze lan garrantzitsua egin zaio, Juanjo Gurrutxaga arkitektoak diseinatu eta zuzendua. Haren xedea eraikinaren erabilerak dibertsifikatzea eta Oria ibaian are gehiago txertatzea zen. Goiko terraza eta sotoa esparru publiko bilakatu dira, azkena ibaitik gertu egotearekin bateragarriak diren kirol erabileretarako.

Azken ehun urteetan esku-hartze sakonak izan arren, Zerkausiko merkatuak garai bakoitzeko hirian nortasun handiz txertatzen jakin du beti. Geratu den eraikinean une horietako bakoitza eta bizi dituen aldaketak argi irakur daitezke.

BIBLIOGRAFIA

MARTÍN RAMOS, A., 1993.

de las estructuras de hierro hasta las de hormigón, conformando un edificio singular y único, de gran presencia. En él se combinan líneas eclécticas y funcionales de modo totalmente armonioso. Recientemente, en 2006, ha sido objeto de una importante rehabilitación, diseñada y dirigida por el arquitecto Juanjo Gurruchaga, que perseguía diversificar los usos del edificio, integrándolo más si cabe con el río Oria. Se han ganado como espacios públicos la terraza superior y el sótano, éste para usos deportivos compatibles con su proximidad al río.

A pesar de las profundas intervenciones que ha conocido en los últimos cien años, el mercado del Tinglado ha sabido integrarse siempre con gran personalidad en la ciudad de cada época. El resultado es un edificio sobre el que pueden leerse claramente cada uno de esos momentos y los cambios que ha experimentado.

BIBLIOGRAFÍA

MARTÍN RAMOS, A., 1993.